



## 2020ko Dantzaren Munduko Egunaren mezua. Gregory Vuyani MAQOMA

2020ko apirilaren 29a

Euskara

(Jatorrizko testua ingelesez, euskarazko itzulpena SAREA Euskal Antzoki Sareak egindakoa)

---

### **Gregory Vuyani MAQOMA, Hegoafrika**

#### **Dantzaria, aktorea, koreografoa eta dantza-irakaslea**

Orain dela gutxi izan nuen elkarrizketa batean pentsatu nuen sakonki dantzan. Zer esan nahi du niretzat? Nire erantzunean, nire bidaia aztertu behar izan nuen, eta konturatu nintzen dena xede bat zela, eta egun bakoitzak aurre egin beharreko erronka berri bat dakarrela, eta dantzaren bidez saiatzen naiz munduari zentzua ematen.

Imajinatu ezinezko tragediak zeharkatzen ari gara, gizakiaren ondorengo aro gisa hobeto deskriba daitekeen garai batean. Inoiz baino gehiago, xede batekin dantzatu behar dugu, munduari gogorazteko gizatasuna oraindik existitzen dela. deuseztatze-paisaia birtual ukaezineko urteetan eta urteetan zehar xedea eta enpatia izan behar dira nagusi; tristura eta heriotzak, gaitzespenak eta pobreak aurrez aurre dituzten bizidunei eragiten dien errealitate gogorra inbaditzen dituen min unibertsalaren katarsia eragin duen paisaia. Gure dantzak inoiz baino gehiago eman behar die seinale sendo bat munduko liderrei, giza baldintzak zaindu eta hobetzeko ardura eman zaienei, pentsalari amorratuen armada garela eta gure xedea mundua urratsez urrats aldatzen ahalegintzen dela. Dantza askatasuna da, eta aurkitutako gure askatasunaren bidez, munduko hainbat txokotan aurrez aurre egin behar dieten tranpetatik askatu behar ditugu besteak. Dantza ez da politikoa, baina politiko bihurtzen da, bere zuntzean giza lotura bat daramalako eta, beraz, giza duintasuna berrezartzeko ahaleginean egoerei erantzuten dielako.

Gure gorputzekin dantzan egin ahala, espazioan eroriz eta elkarrekin korapilatuz, mugimendu indar bihurtzen gara, bihotzak ehunduz, arimak ukituz eta hain etsi-etsian beharrezkoa den sendabidea emanez. Eta xedea alderdi anitzeko dantza bakar bihurtzen da, garaiezina eta zatiezina. Orain behar dugun guztia dantza egite da, pixka bat gehiago!